



Ayuntamiento de Ansoáin  
Antsoaingo Udala  
C.I.F./ I.F.K. P3132500D  
Tel.: 948132222  
012 - 948012012

Udaletxeko Plaza, 1  
Plaza Consistorial, 1  
31013 Nafarroa – Navarra  
[ansoain@ansoain.es](mailto:ansoain@ansoain.es)  
[www.ansoain.es](http://www.ansoain.es)

## 171. ALDIZKARIA - 2017ko irailaren 5a 62. ALDIZKARIA - 2018ko martxoaren 28a (Aldaketa)

**ORDENANTZA, UDA-NEGUETAKO IGERILEKUAK, GUNE HIDROTERMALA ETA INSTALAZIO OSAGARRIAK OSATZEN DITUZTEN KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ETA KIROL ABONAMENDUKO JARDUEREN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA**

### **13. ORDENANTZA**

#### **OINARRIA**

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatuari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikulua baimenaren babesean.

#### **ORDAINDU BEHARRA**

2. artikulua. Igerilekuetako erabiltzaileak, gune hidrotermalekoak, instalazio osagarrietakoak eta kirol abonamenduan izena emandakoak daude ordainarazpen hauek ordaintzera beharturik.

#### **ORDAINDU BEHARRA**

3. artikulua. Igerilekuetarako, gune hidrotermalerako eta instalazio osagarrietarako sarbidea ematen duen sarrera edo udal baimena eskuratzen denean eta kirol abonamenduaren jardueretan izena ematean sortzen da ordaindu beharra.

#### **TARIFAK**

4. artikulua. Aplikatzeko tarifak ordenantza honen tarifen eranskinean agertzen dira.

#### **KUDEATZEKO ARAUAK**

5. artikulua. Egun bateko balioa duten txartel edo sarrerak eta hilabeteko abonamendua instalazioetan sartzeko unean luzatuko dira. Horretarako arau berezia izanen da instalazioetako diru-bilketa zerbitzuei ordaintzea prezioa. Haiek luzatuko dituzte txartelak, ordaintzaren frogagiriak izanen direnak.

6. artikulua. Instalazioak abonamendu bitartez erabili nahi dituztenek, abonamendu hori denbora mugarik gabekoa ala denboraldikoa izan, Udalak finkatzen duen moduan eta baldintzetan eskuratuko dute.

7. artikulua. Urtero Udalak erabakiko du noiz hasi eta noiz bukatuko den igerilekuen denboraldia, baita instalazio bakoitza zein ordutan ireki eta itxi ere. Instalazioak itxirik egonen dira urtean 15 egunetan, ikuskapen teknikoetarako. Gainera, itxirik egonen dira urtarrilaren 1ean eta abenduaren 24, 25 eta 31n.

Ordutegi hauek ezarri dira:

***Uda-neguetako igerilekuak.***

–Neguko denboraldia:

- Astelehenetik ortziratera, 9:30etik 13:30era eta 15:00etatik 22:00etara.
- Larunbatetan, 09:30etik 22:00etara.
- Igande eta jaiegunetan, 9:30etik 14:30era.

Batean nahiz bestean igeri-ontziak instalazioak itxi baino 30 minutu lehenago hetsiko dira.

–Udako denboraldia:

- Egunero, 10:00etatik 21:30era.

Igeri-ontziak instalazioak itxi baino 30 minutu lehenago hetsiko dira.

***Gune hidrotermala.***

–Astelehenetik larunbatara, 9:30etik 22:00etara.

–Igande eta jaiegunetan, 9:30etik 14:30era.

Batean nahiz bestean igeri-ontzien esparrua instalazioak itxi baino 30 minutu lehenago hetsiko dira.

***Gimnasioa.***

–Astelehenetik larunbatara, 9:00etatik 22:00etara.

–Igande eta jaiegunetan, 9:30etik 14:30era.

Aretoa instalazioak itxi baino 30 minutu lehenago hetsiko da.

***INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ARAUAK***

8. artikulua. Instalazioen barrenean diren bitartean, erabiltzaileek aldean eraman beharko dituzte txartelak eta arduradunei erakutsi eskatutakoan, bestela kanpora bidaliko baitituzte.

9. artikulua. Instalazioetan sartzen diren guztiek men egin beharko diete ikusgai dauden funtzionamendu arauak. Beraz, instalazioen erabiltzaileek uneoro bete beharko dituzte portaera arauak eta instalazioa erabiltzekoak, ikusgai baitaude.

10. artikulua. Instalazioetan sartu ahal izateko abonatuak nahitaez eduki beharko ditu ordainduta tarifen eranskinean zehazten diren kuotak.

Udalak, ofizioz, baja emanen die instalazioen erabilpenean lau ordainagiri ordaindu ez dituzten erabiltzaileei, baja beraiek eskatu ez badute. Horrek ez du kenduko bajaren eguna arte sortu diren kuotak ordaintzeko beharra.

### ***KIROL ABONAMENDUA ERRESERBATZEKO SISTEMAREN ARAUAK***

11. artikulua. Kirol abonamendurako izena honako hauek eman dezakete:

–Antsoaingo Udalaren kirol instalazioetan abonamendua duten pertsonak.

–Antsoainen erroldatuak egon, baina Antsoaingo Udalaren kirol instalazioetan abonamendua ez duten pertsonak.

–Antsoainen erroldatuak ez dauden, eta Antsoaingo Udalaren kirol instalazioetan abonamendua ez duten pertsonak.

12. artikulua.

a) Indarreko araudia, kirol abonamenduari buruz sor litezkeen aldaketak barne, instalazioetako iragarki oholean eta Udalaren webgunean egonen da jendaurrean.

b) Kirol abonamendua erreserbatzeko programa erabiltzeko, beharrezkoa da bertan izena ematea. Antsoaingo Udalaren webgunean edo kirol instalazioetako harreragunean eman daiteke izena.

c) Izen emateen eta bajen tramitazioa eta prozedura, baita zerbitzu hau erabiltzeko baldintzena ere, instalazioetako iragarki oholean eta Udalaren webgunean egonen da jendaurrean.

### ***ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPENAK***

13. artikulua. Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

14. artikulua. Arau-hauste arinak.

–Hona arau-hauste arinak:

1.–Esparruko instalazioak zuzen ez erabiltzea.

2.–Behar bezalako oinetakoak ez erabiltzea bai berdeguneetan bai igerilekuen esparruan.

3.–Jatea edo edatea horretarako eremuetatik kanpora.

4.–Paperontziak, hautsontziak eta instalazioa garbi edukitzeko gainerako elementuak ez erabiltzea.

5.–Esparrura sartzea bizikleta, triziklo, patin eta abarrekin, eta berdegunetara aulkiekin, aulkitxoekin eta haurtxoendako gurditxoekin, baimen espresurik izan ezean.

6.–Zaindu gabe edukitzea 7 urtetik beheitiko haurrak, arrisku egoerei kasurik egin gabe, hala nola ondoan heldurik ez dutela palastakoak ez diren igerilekuetan bainatzea.

7.–Gune hidrotermalean 14 urtetik beheitiko haurrak zaindu gabe edukitzea.

- 8.–Igerilekuan edo eremu hezeetan dutxatu gabe sartzea.
  - 9.–Uretan hegatsak, uretako betaurrekoak eta flotagailu handiak erabiltzea. Orobat, jaurtitzen diren zerekin edo besteei traba egiten dietenekin jostatzea.
  - 10.–Neguko igerilekuan eta gunehidrotermalean bainatzeko txanorik gabe bainatzea.
  - 11.–Helduak palastako igerilekuan premiarik gabe gelditzea.
  - 12.–Palastako igerilekuan bainujantzirik edo pixoihalik gabe sartzea.
  - 13.–Palastako igerilekuaren barnean jatea edo jatera ematea.
  - 14.–Aldageletan edo igerilekuen esparruan erretzea.
  - 15.–Gainean gauzak ezarriz mahaiak eta aulkiak berehala erabiltzeko asmorik gabe okupatzea.
  - 16.–Aire zabaleko jantokia erabili ondoan zikin uztea.
  - 17.–Instalazioko langileek (begiraleek, sorosleek, udal langileek eta oro har mantentze lanetakoek) erabilera dela-eta egiten dituzten oharrei kasurik ez egitea.
  - 18.–Instalazioko edozein arau ez betetzea, arau-hauste larria edo oso larria ez denean.
15. artikulua. Arau-hauste larriak.
- Hona arau-hauste larriak:
- 1.–Txartelaren titularra ez denak hura erabiltzea, hura galdu edo galtzeagatik salaketa dagoenean izan ezik. Txartelaren titularra izanen da arau-hauste honen erantzulea.
  - 2.–Egun berean bi arau-hauste arin egitea.
  - 3.–Instalazioan animaliak sartzea, gidazakurrak izan ezik.
  - 4.–Bainu hartzaileei traba egitea.
  - 5.–Basakerietan aritzea.
  - 6.–Horditurik edo edozein drogaren eraginpean bainatzea.
  - 7.–Beste edozein arau ez betetzea, beste erabiltzaileen edo arau-hauslearen beraren segurtasunari eragiten ahal badio, bereziki igerilekuak, bainu turkiarrak, hidromasajea, terma, presioko dutxak, jacuzzia eta aldagelak oker erabiltzeari dagozkion guztietan.
  - 8.–Instalazioko edozein higigarri edo higiezini kalte egitea.
  - 9.–Instalazioaren barnean ordena publikoa asaldatzea dakarren edozer egitea edo ez egitea.
  - 10.–Langile arduradunak eta instalazioan lan egiten dutenak iraintzea edo mendratzea.

11.–Instalazioetan hordi itxura nabarmenean edo drogen eraginpean sartzea.

12.–Eguneko erabilpenaren ondotik takilla itxirik uztea.

16. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

1.–Arau-hauste larri bat behin eta berriz egitea.

2.–Instalazioaren barnean bizikidetzari, ordenari eta segurtasunari bereziki eragiten dieten arau-hauste larriak.

3.–Instalaziora sartzeko txartel edo giltzak faltsutzea.

4.–Instalazioko materiala edo besteen ondasunak lapurtzea eta ebastea.

5.–Instalazioaren erabiltzaileei edo bertako langileei erasotzea.

6.–Instalazioaren barnean drogak saldu edo kontsumitzea.

7.–Inor instalaziora edozein arma mota daramala sartzea.

8.–Instalaziora sartzea horretarako aurreikusitako sarbideak erabili gabe.

#### **ZEHAPENAK.**

17. artikulua. Arau-hausteak honela zehatuko dira:

a) Arinak:

–Lehen hutsegite arina, idatziz kargu hartzea.

–Bigarren hutsegite arina urte berean, egun baterako bidaltzea.

–Hirugarren hutsegite arina urte berean, aste baterako bidaltzea.

–Laugarren hutsegite arina urte berean arau-hauste larritzat hartuko da.

b) Larriak:

–Lehen hutsegite larria, hamabost egunerako bidaltzea.

–Bigarren hutsegite larria urte berean, hogeita hamar egunerako bidaltzea.

–Hirugarren hutsegite arina urte berean arau-hauste oso larritzat hartuko da.

c) Oso larriak:

–Lehen hutsegite oso larria, hiru hilabeterako bidaltzea.

–Bigarren hutsegite oso larria urte berean, abonamendua galtzea.

## TARIFEN ERANSKINA

### **KIROL INSTALAZIOAK: UDA-NEGUETAKO IGERILEKUAK, GUNE HIDROTERMALA ETA INSTALAZIO OSAGARRIAK**

#### ***I. epigrafean.–Denbora mugarik gabe inskribatzen diren erabiltzaileen tarifak.***

Ondoko A eta B ataletako kuotak ordainduko dituzte:

–A atala.

A.1.–Banakakoen inskripzio kuotak:

- 5 eta 15 urte bitarte: 51,00 euro.
- 16 urtetik gorakoak: 76,00 euro.
- Erretirodunak eta pentsiodunak, betiere Ordenantza honetako tarifen aplikaziorako arauen 9. ataleko baldintzak betez gero: 51,25 euro.

A.2.–Inskripzio kuota murriztuak (26 urtetik beheitiko familiako hirugarren kideetik aitzina).

- 5 eta 15 urte bitarte:
  - 3. kidea: 38,50 euro.
  - 4. kidea: 26,00 euro.
  - 5. kidea eta hurrengoak: 13,50 euro.
- 16 urtetik gorakoak:
  - 3. kidea: 57,25 euro.
  - 4. kidea: 38,50 euro.
  - 5. kidea eta hurrengoak: 19,75 euro.

–B atala.

B.1.–Hiruhilekoko kuotak igerilekua eta gune hidrotermala erabiltzeko (banakakoak).

- 5 eta 15 urte bitarte: 32,25 euro.
- 16 urtetik gorakoak: 59,25 euro.
- Erretirodunak eta pentsiodunak, betiere Ordenantza honetako tarifen aplikaziorako arauen 9. ataleko baldintzak betez gero: 38,73 euro.

B.2.–Hiruhilekoko kuotak igerilekua eta gune hidrotermala erabiltzeko (murriztuak izanen dira 26 urtetik beheitiko familiako 3. kideetik aitzina):

- 5 eta 15 urte bitarte:
  - 3. kidea: 24,75 euro.
  - 4. kidea: 17,25 euro.
  - 5. kidea eta hurrengoak: 9,75 euro.
- 16 urtetik gorakoak:
  - 3. kidea: 45,00 euro.
  - 4. kidea: 30,75 euro.
  - 5. kidea eta hurrengoak: 16,50 euro.

**II. epigrafea.–Denboraldiko abonamenduak:**

- 5 eta 15 urte bitarte:
  - Udako denboraldia: 75,00 euro.
  - Neguko denboraldia: 206,35 euro.
- 16 urtetik gorakoak:
  - Udako denboraldia: 118,80 euro.
  - Neguko denboraldia: 272,00 euro.
  - Erretirodunak eta pentsiodunak, betiere Ordenantza honetako tarifen aplikaziorako arauen 9. ataleko baldintzak betez gero:
- Udako denboraldia: 75,00 euro.
- Neguko denboraldia: 206,35 euro.

**III. epigrafea.–Hileko abonamendua, hilabete naturala. (ekaina, uztaila eta abuztua kenduta).**

- 5 eta 15 urte bitarte: 31,25 euro.
- 16 urtetik gorakoak: 46,90 euro.

**IV. epigrafea.–Eguneko sarrerak:**

- 5 eta 15 urte bitarte: 6,25 euro.
- 16 urtetik gorakoak: 9,50 euro.

**V. epigrafea.–Sarreretarako bonuak.**

- 5 eta 15 urte bitarte:
  - Zenbait saiotarako bonuen zenbatekoa hau da:
- Bortz saiotarako bonua, hiru hilabetean agortu beharrekoa: 26,00 euro.
- Hamar saiotarako bonua, sei hilabetean agortu beharrekoa: 46,90 euro.
- 16 urtetik gorakoak:

- Bortz saiotarako bonua, hiru hilabetean agortu beharrekoa: 41,70 euro.
- Hamar saiotarako bonua, sei hilabetean agortu beharrekoa: 78,20 euro.

**VI. epigrafea.–Bestelako zerbitzuak.**

–Gimnasioa, hiruhilekoa: 28,85 euro.

Oharrak:

1. Gimnasioan alta eskatzeko, aldez aurreko baldintza da denbora mugagabeko abonamendua izatea kirol instalazioetan.

2. Kuota hiruhileko natural bakoitzeko lehen egunean sorraraziko da. Alta hiruhileko naturala hasirik eskatzen bada, hiruhilekoa bukatzeko falta den hilen artean hainbanaturik ordainduko da kuota hori, alta egiten den hila barne.

3. Orobat, bajek, noiz egiten diren, ondoko hiruhileko naturalean izanen dute indarra, eta idatziz eskatu beharko dira.

–Txartelak luzatzea edo berriz luzatzea galtzeagatik edo hondatzeagatik: 5 euro.

–Kirol abonamenduaren prezioak:

- Udalaren kirol instalazioetan abonamendua duten pertsonen: 27 euroko kuota hilean.
- Antsoainen erroldatuak egon, baina Udalaren kirol instalazioetan abonamendua ez duten pertsonen: 35 euroko kuota hilean.
- Antsoainen erroldatuak ez dauden, eta Udalaren kirol instalazioetan abonamendua ez duten pertsonen. 42 euroko kuota hilean.

–Kirol abonamenduari buruzko oharrak:

- Kuota hilabete bakoitzaren hasieran ordaindu beharko da. Hilabetea hasita dagoela eskatzen bada alta, hileko kuota egun kopuruaren arabera hainbanaturiko da, alta eman den egunetik zenbatzen hasita.
- Bajak abian den hilabetea amaitu aurretik bideratu behar dira eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunean izango dute eragina.

**VII. epigrafea.–Antsoaingo bizilagunek kirol pistak erabiltzea.**

VII.1.–Frontoia:

–Pilotalekua erabiltzea pilota partidetarako:

a) Argi guztiarekin: 13,50 euro orduko.

b) Argi oinarrizkoarekin: 9,75 euro orduko.

c) Argirik gabe: 7,10 euro orduko.



–Pilotalekua bestelako kirol erabileretarako:

a) Argi guztiarekin: 42,10 euro orduko.

b) Argi oinarrizkoarekin: 37,00 euro orduko.

c) Argirik gabe: 26,35 euro orduko.

VII.2.–Kiroldegia:

–Kiroldegiaren erabilera:

a) Argiarekin: 37,10 euro orduko.

b) Argirik gabe: 26,35 euro orduko.

VIII.3.–Futbol zelaia:

–125,00 euro partida bakoitzeko, argirik gabe.

–168,00 euro partida bakoitzeko, argiarekin.

## TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK

1. Erabiltzaile bakoitzak dagozkion kuotak ordainduko ditu, ondoko araei jarraikiz.
  2. Inskripzio kuotak behin bakarrik ordainduko dira, instalazioetan alta egitean, lehen ordainagiria igorritz.
  3. Ez dute inskripzio kuotarik ordainduko 2013ko urtarrilaren 1etik aitzina kirol instalazioetan lehen aldiz abonatzen direnek, ezta data hori baino lehen baja eginik berriz ere alta egiten dutenek ere, inskripzioari dagokionez abonatu berriztat hartuko baitira. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera alta alta eman ondoren baja eman dutenek, behin betiko bazkideak izateko berriz, inskripzio kuota ordaindu beharko dute.
  4. Mugagabeko inskripzioa egiteak lehentasuna emanen du instalazioak erabiltzeko igerilekuen edukiera betez gero.
  5. Kirol instalazioak erabiltzeko kuotak hiruhilekoetan ordainduko dira. Alta hiruhileko naturala hasirik eskatzen bada, hiruhilekoa bukatzeko falta den hilen artean hainbanaturik ordainduko da kuota hori, alta egiten den hila barne.
- Tarifan agertzen den adin tarte bakoitzeko kuotak hainbanaturik ordaintzen hasiko dira hiruhileko naturala bukatzeko falta diren egunen heinean, behar den adina betetzen den hilabetea barne dela.
6. Orobat, bajek, noiz egiten diren, ondoko hiruhileko naturalean izanen dute indarra, eta idatziz eskatu beharko dira.

7. Betiere nahitaezko betebeharra izanen da banku batean helbideratzea behar diren kuotak kobratzeko.

8. Kuota murriztuak izateko baldintzak:

–Kuota murriztuak 26 urtetik beheitikoei aplikatuko zaizkie, bi baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Bere familiako 2 kide igerilekuko ohiko abonatu mugagabe izatea, banakako kuotak ordaintzen dituztenak murrizketarik gabe.

b) Familiako kide horiek izatea aita, ama, legezko tutoreak edo 26 urtetik beheitikoak izatea, eta bere guraso edo legezko tutoreetako batekin bederen bizi izatea.

–26 urtetik goitiko anai-arrebek ez dute murrizketarako eskubiderik sortzen, eta ez dute kuota murrizturako eskubiderik.

–Udalak edozein unetan frogatzen ahalko ditu murrizketarako eskubidea sortzen duten egoera familiarrak, eta urtero berrikusiko dira.

–Izena emanik edo hiruhileko ordainagiria luzaturik familiaren inguruabarrak aldatzen badira, ez dira hurrengo hiruhilekoa arte kontuan hartuko.

9. Erretiratuek eta pentsiodunek gizarte sektore horretarako ezarritako kuota izan dezaten, lanbide arteko gutieneko soldata gaintzen ez duen diru-sarrera dutela beharko dute frogatu, famili unitatearen per capita errenta kontuan hartuz.

10. Etenik geldituko da bai hiruhilekoko kuotaren kobrantza bai kirol instalazioko sarrera, nahitaezko lekualdatze bat gertatzen delarik, gutienez ere hiruhileko bat irauten duena, lana edo irakaskuntza aratuak direla-eta. Egoera horiek egiaztatzeko, behar den lan-kontratua, enpresarian agiria edo ikastetxeko matrikula ofiziala erakutsiko da. Salbuespenez, hiruhileko kuotaren kobrantza eta kirol instalazioetarako sarrera aldi baterako eteten ahalko dira, hiru hilabetetik gora etxebizitzatik kanpo dagoela frogatzen bada.